

# Funtsezko jarduerak

Enpresa baten funtsezko jarduerak negozioak funtzionatzea, balioa sortzea eta helburu estrategikoak lortzea ahalbidetzen duten funtsezko zereginak dira. Gure enpresak funtsezko jarduera konkretu batzuk ditu:

**-Produkzioa edo zerbitzu-ematea:** Enpresak eskaintzen dituen produktuak edo zerbitzuak sortzea. Merkatuaren beharrak asetzen dituzten zerbitzuak fabrikatzea, mihiztatzea, garatzea edo ematea.

**-Marketina eta salmentak:** Jarduera hauek funtsezkoak dira bezeroak erakartzeko, produktuak edo zerbitzuak sustatzeko eta salmentak ixteko. Marketin, publizitatea... erabiliko dugu erosleak lortzeko.

**-Teknologiaren kudeaketa:** Teknologia oso garrantzitsua da, horregatik gure enpresan, oso kontrolatuta dago. Sistemen kudeaketa, zibersegurtasuna eta software kontrolatzen dugu.

**-Bezeroarentzako zerbitzua:** Bezeroari zerbitzu bikaina ematea funtsezkoa da gure enpresan, bezeroaren gogobetetasuna eta markarekiko leialtasuna mantentzeko.

**-Finantza-kudeaketa:** Finantzen kudeaketa egokia (kontabilitatea, aurrekontua, arriskuen kudeaketa, finantza-azterketa eta finantzaketa lortzea barne) funtsezkoa da gure enpresan, horrela hazkundea eta finantza osasuna mantenduko dugu.

**-Giza baliabideen kudeaketa:** Langile talentudunak kontratatzea, gaitzea eta motibatzea. Giza kapitalaren kudeaketa oso garrantzitsua da gure enpresan, horrela arrakasta izango dugu.

